

Batzar ibiltaria Ziako erreka-aren inguruko lanak bertatik bertara ezagutzeko

- URA Agentziako ordezkariak lanen berri emango diete auzotarrei tokian bertan
- Irailaren 30ean izango da batzar ibiltaria, 18:00etan, Martin Ugalde Kultur Parketik hasita

Andoainen, 24-09-23.- Ezaguna denez, URA Agentzia Ziako erreka-aren saneamendua hobetzeko eta uholdeetatik babesteko proiektua ari da gauzatzen azken hilabeteetan. Prozesuak fase ezberdinak izango ditu, eta horrek zenbait eragozpen ekarriko ditu eguneroko martxan.

Horien guztien berri emateko, pasa den uztailan herri batzarra egin zen Martin Ugalde Kultur Parkean. Hainbat zalantza argitzeko balio izan bazuen ere, bigarren kolpe batean lanak tokian bertan ezagutzeko konpromisoa hartu zuten URA Agentziako eta Udaleko ordezkariak.

Bada, Ziako erreka-aren inguruko lanak ezagutzeko **BATZAR IBILTARIA** antolatu da: **irailaren 30ean** izango da, **astelehenean, 18:00etan, Martin Ugalde Parketik** hasita.

Udalak auzotarrak eta interesa izan dezaketen herritarrak gonbidatu nahi ditu hitzordura zalantzak argitu eta lanen martxan bertatik bertara ezagutu dezaten.